

# Ongi erabili

Sendagaiak oso tresna baliotsua osatzen dute gaixotasunak prebenitu eta osatzeko.

Ongi erabiltzen ez badira, eraginkortasuna galdu dezakete edo osasunarentzat kaltegarriak izan daitezke.

Sendagai guztiak izan daitezke arriskutsuak eta alboko eraginak, kalteak edo ezustekoak sortu. Arrisku horiek are handiagoak dira ongi erabiltzen ez direnean.

**ONGI ERABILI SENDAGAIK.  
ZEURE ETA BESTE GUZTION  
ONERAKO.**



[www.medicamentososonunjuego.es](http://www.medicamentososonunjuego.es)



Sensdagaiak  
**HARTU AURRETIK,  
GALDETU**

Beharrezkoak direnean oso erabilgarriak dira, baina gaizki erabiliz gero, osasunarentzat kaltegarriak izan daitezke.

**Ez jolastu haiekin.**



[www.medicamentososonunjuego.es](http://www.medicamentososonunjuego.es)

**Sendagaiak oso erabilgarriak dira eta zure osasun-arazoak sendatzen lagunduko dizute ongi erabiltzen badituzu.**

Horretarako, hartzen dituzun sendagaien inguruan haiek nola hartu behar dituzun ongi informatu.

**GALDETU BETI SENDAGILEARI EDO FARMAZIALARIARI. IRAKURRI PROSPEKTUA.**

- Esan sendagileari zein sendagai hartzen ari zaren, haien arteko arazoak saihesteko.
- Ez irten sendagilearenetik tratamenduari buruzko guztia ongi ulertu gabe.
- Jarraitu sendagileak emandako jarraibideei.
- Irakurri beti prospektua sendagaia erabili aurretik, zuretzat egindako dokumentua baita.
- Ez utzi tratamendua aurretik sendagileari galdetu gabe.
- Sendagaia erosteko unean hura erabiltzeari buruzko zalantzak badituzu. Farmazialariari galdetu.

**Zenbat eta informazio gehiago, orduan eta prestatuago egongo zara erroreak saihestu eta zeure burua zaintzeko.**

**PRESKRIPZIOA PRINTZPIO AKTIBOAREN ARABERA.**

Eragin terapeutikoa izatea eragiten duten substantziak diren printzipio aktiboak dituzte sendagaiak.

- Printzipio aktiboaren arabera emateak sendagaien segurtasuna, kalitatea eta eraginkortasuna bermatzen du.
- Honek osagai berberak dituzten sendagai guztiak hartzen ditu, marka komertzialak zein sendagai generikoak.

**SENDAGAIK EZ DIRA JOLASTEKO.**

- Beste norbaiti eman dizkieten sendagaiak hartzea arriskutsua da. Baita zuri eman dizkizutenak besteei ematea ere.
- Zuri behin on egiteak ez du esan nahi hurrengoan ere on egingo dizunik.
- Ez dago ezer eragiten ez duen sendagairik.

**EZ ITZAZU SENDAGAIK METATU.**

- Zure etxea ez da botika, ez itzazu behar ez eta erabiltzen ez dituzun sendagaiak metatu.
- Sendagai guztiek ez dituzte gordetzeko baldintza berberak behar.
- Bi arrisku ditu sendagaiak metatzeak: egoera onean ez gordetzea edo iraungitzea.

**Sendagaiak oso baliotsuak dira ongi erabiltzen badira gaixotasunak osatzeko, baina ongi erabiltzen ez direnean, osasunarentzat oso arriskutsuak dira.**

